## OSASUN SAILA

**3392**

**303/1992 DEKRETUA, azaroaren 3koa, Ospitaleetako Altaren xehetasunen oinarrizko gutxienezko bilduma arautzeko eta Euskal Autonomi Elkarteko Ospitaletako Alten erregistroa sortzeko dena.**

Osasunbide politikak formulatzekoan eta erabiltzekoan behar den eginkortasunaren funtsezkoena den garantiak, xehetasun fidagarriak edukitzeko aukeran oinarritu beharko du, egoera errealetatik ateratakoetan, eta, beste faktore batzuren artean, osasunbide joerak, baliabideen erabilpena eta emandako sorospenaren kalitatea egoki aztertzea emango dutenetan, halaber, ebaluaketa prozesu bat egitea emango dutenetan, hortik abiatu ondoren egitarau eta helburuak birformulatu ahal izatea ekarriko dutenetan.

Zer esanik ez, aipatutako ikuspegi horretatik begiratuta, egokiak diren sistemak ezartzea, osasunbide sistema planifikatzeko zeregina egoki garatu ahal izateko, funtsezko betebehar bat bilakatuko dela eta gainera, beste maila batzutan, elkarte baten izurrite perfila ezagutzearen alorrean bezala eta osasunbide zerbitzuen kudeaketan bertan ere bai, balio handiko ezagutzak emango dituela horrek.

Bestalde, argi eta garbi dago, ospitaleak, sorosketa unitate bat den aldetik, baliabideen zatirik handiena gastatzen duenez eta teknologi garapenaren eta sistemak duen lanbide kualifikazioaren aurretik doanez, osasunbide sistemaren multzoan ohiartzun handia duela.

Hortik dator beraz, baliabideen kudeaketa egokia eta bere iharduketaren eta betetzen duen sorospen-kalitatearen monitorizatzea, elkartearen osasunbide politika orokorraren garapenean goreneko eragile bilakatzea, eta, aurretik jarritako ildo orokorrei, estrategiei eta estandarrei beren garapena egokitu ahal izateko, hori nolabait neurtu beharra izatea.

Parametro horiek neurtzea, ekitate eta eginkortasun arrazoiak kontutan hartuta gainera, oraindik bukatu ez den arau mailako eztabaida handi baten xede izan da. Oharpen horiei erantzuten die «Ospitaleetako Altaren Txostena» izeneko tresnak eta araubidezko laguntza eman dio horri 1984ko irailaren 6ko Ministeritza Aginduak eta antzeko moduko harrera izan du Euskal Autonomi Elkarteko Ospitaleetako Historia Klinikoaren erabilpena arautzeko zen Eusko Jaurlaritzaren 272/1986 Dekretuan dagoen araugintza autonomikoak, halaber, «Ospitaletako Morbilitatearen Enkuesta» delakoak ere, ospitaleetan sarreren eta alten erregistroaren obligazioa ezartzeko zen 1360/1976 Dekretuaren estatu mailako araugintzaren babesean.

Planifikatzaileen, profesionalen eta hainbat osasunbide agintarien artean gai horrek azken batean sortu duen gero eta handiagoa den interesak, Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma (X.G.O.B.) izeneko tresna berri bat agertzea ekarri du, herri europear batzutan altari buruzko informearen laburpenean dauden xehetasun batzuren erabilgarritasunari eta utilitateari buruz E.E.E.ren barruan eratutako batzorde baten azterlanaren ondoren aukeratua dena.

Izaera inpertsonala izango duen eta ospitale guztiak nahitaez eduki behar duten xehetasunen estandarizatutako nukleo bat formatuz, aipatutako informazio erregistro hori arautzea du xedetzat xedapen honek,

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**3392**

**DECRETO 303/1992, de 3 de noviembre, por el que se regula el conjunto mínimo básico de datos del Alta Hospitalaria y se crea el registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.**

La más elemental garantía de efectividad en la formulación y aplicación de políticas sanitarias debe basarse en la disponibilidad de datos fiables, extraidos de situaciones reales, que permitan analizar adecuadamente las tendencias sanitarias, la utilización de recursos y la calidad asistencial prestada, entre otros factores, así como, por otra parte, permitan realizar un proceso de evaluación a partir del cual reformular programas y objetivos.

Es indudable que, desde el punto de vista citado, el establecimiento de sistemas de información apropiados resultará un quehacer fundamental para el correcto desarrollo de la función de planificación del sistema sanitario, además de aportar datos de estimable valor en otros niveles, como en el terreno de conocimiento del perfil epidemiológico de una comunidad y en la propia gestión de los servicios sanitarios.

Por otra parte, es evidente que el hospital, como unidad asistencial, tiene una enorme repercusión en el conjunto del sistema sanitario, en tanto que consume la mayor parte de recursos y lidera el desarrollo tecnológico y la cualificación profesional del sistema.

De ahí que la gestión adecuada de sus recursos, así como la monitorización de su actividad y de la calidad asistencial prestada, representan factores trascendentales en el desarrollo de la política sanitaria global de la comunidad, que de alguna manera es preciso medir para adecuar su desarrollo a las líneas generales, estrategias y estándares prefijados.

La medida de estos parámetros, teniendo en cuenta además razones de equidad y de eficacia, ha sido objeto de un enorme debate doctrinal aún no finalizado. Responden a tales consideraciones el instrumento denominado «Informe de Alta Hospitalaria», con cobertura normativa en la Orden Ministerial de 6 de septiembre de 1984, referenciado en similares términos por la normativa autonómica comprendida en el Decreto del Gobierno Vasco 272/1986, por el que se regula el uso de la Historia Clínica de los Centros Hospitalarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la «Encuesta de Morbilidad Hospitalaria», amparada en la normativa estatal de Decreto 1360/1976, por el que se estableció la obligatoriedad del libro de registro de ingresos y altas en los hospitales.

El creciente interés que en definitiva ha generado esta cuestión entre planificadores, profesionales y distintas autoridades sanitarias ha deparado la aparición de un nuevo instrumento denominado Conjunto Mínimo Básico de Datos (C.M.B.D.), seleccionado tras el estudio de una comisión formada en el seno de la C.E.E., sobre disponibilidad y utilidad de varios datos contenidos en el resumen del informe de alta en varios paises europeos.

La presente disposición centra su objeto en la regulación del citado registro de información, que toma su base en la Historia Clínica, formando un núcleo estandarizado de datos, de carácter impersonal, que todo

Euskadiko Ospitaleetako Alten Erregistroa izeneko komunitate mailako osasunbide informazioaren sistema bat eratu ahal izateko.

Bestalde, Autonomi Elkarteko ospitaleetan Historia Klinikoa erabiltzeari buruzko 272/1986 Dekretu horren 7. atalean aurrikusirik dago orain nahi den ekintza hori eta beraz, norbanakoaren konfidentzialtasuna bermatzeko, aipatu xedapen horrek ezartzen dituen arretak eta prozedurak errespetatu egin beharko dira ekintza horren garapenean.

Azkenez, zera ohartarazi behar da, autoantolaketarako bereak diren ahalmenak erabiltzen baditu ere eta Autonomi Estatutuaren 18. atalak Euskal Autonomi Elkarteari ematen dizkion eskuduntzak ere bai eta Osasunerako Orokorra den 14/1986 Legean adierazitako agninduekin eta oinarrizko esparruarekin loturik, ezin direla bazterrean utzi orain hasitako ekintza horrek estatistika alorrean dituen uka ezinezko eraginak.

Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko Eusko Legebiltzarraren 4/1986 Legetik eta Estatistikaren Euskal Plana onartzeko zen 89/1992 Legetik ere, inplikazio argi-argiak ateratzen dira eta orain ez dira bazterrean utzi nahi horiek, alderantziz, administrazio prozedura berri baten oinarriak jartzeko, kontutan hartu dira, prozedura horrek, bere izaeraz, estatistika iturriak bezala erabiltzeko informazioak sortzean, ondorioak izan behar bait ditu, batez ere, aurrikusi diren eta oraindik ekin ez zaien estatistika-operazio zehatzak diseinatu eta gauzatzeari dagokionean.

Hori guztia dela bide, Osasun Sailburuaren proposamenez, Euskal Estatistika-Erakundeak dioena jaso ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko azaroaren 3an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*–1.– Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Historia Klinikoan dagoen ospitale-altari dagokion informazio anonimoaren muinaren multzoa hartuko duen administrazio antolaketaren agiria ulertuko da Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma.

2.– Azaroaren 25eko 272/1986 Dekretuaren 3. eta 7. ataletan xedatutakoaren barruan sartzen da informaketa hori osasunbide plangintzarako, ebaluaketarako eta estatistikarako erabiltzea.

*2. atala.*– Euskal Autonomi Elkartean kokatutako ospitale guztiak, bai publikoak eta bai pribatuak ere, behartuak gelditzen dira Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bildumaren gauzaketa bermatzera eta gero Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailean horretarako sortzen den Erregistroari jakineraztera.

*3. atala.*– Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduman ondorengo gorabehera hauek adierazi beharko dira:

1) Ospitale-zentruaren kodea.
2) Erregistroko sarrera zenbakia.
3) Historia klinikoaren zenbakia.
4) Jaioteguna.
5) Sexua.
6) Erresidentzia dueneko tokia.
7) Zertan aritzen den.

hospital deberá obligatoriamente proveer, al objeto inmediato de configurar un sistema de información sanitaria comunitario denominado Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.

Por otra parte, la acción que se pretende encuentra su previsión en el artículo 7.º del ya citado Decreto 272/1986, sobre uso de la Historia Clínica en los Centros hospitalarios de la Comunidad Autónoma, debiéndose respetar en su desarrollo las cautelas y procedimientos que establece la citada disposición, en orden a garantizar la confidencialidad del individuo.

Por último, debe advertirse que si bien se ejercitan las potestades propias de Autoorganización, así como las competencias que atribuyen a la Comunidad Autónoma del País Vasco el artículo 18 de su Estatuto de Autonomía, en relación con las previsiones y el marco básico diseñado en la Ley 14/1986, General de Sanidad, no pueden obviarse las evidentes implicaciones que en el campo de la Estadística presenta la acción ahora emprendida.

De la Ley del Parlamento Vasco 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de la Ley 7/1989, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 89/1992, se desprenden evidentes implicaciones que ahora no se pretenden obviar, sino que por el contrario se han tomado en consideración al efecto de sentar las bases de un nuevo procedimiento administrativo que por su naturaleza ha de tener consecuencias en la producción de informaciones de posible utilización como fuente estadística, máxime en cuanto al diseño y ejecución de concretas operaciones estadísticas ya previstas y aún no abordadas.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Sanidad, oído el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 3 de noviembre de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– 1.– A efectos de los dispuesto en el presente Decreto, se entenderá por Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria el documento de ordenación administrativa comprensible del conjunto nuclear de información anónima concerniente al alta hospitalaria, contenida en la Historia Clínica.

2.– La utilización de dicha información para fines de planificación, evaluación y estadística sanitaria se enmarca dentro de lo dispuesto en los artículos 3 y 7 del Decreto 272/1986, de 25 de noviembre.

*Artículo 2.*– Todos los Centros Hospitalarios, tanto públicos como privados, radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, quedan obligados a garantizar la elaboración y posterior comunicación del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria al Registro que a tal efecto se crea en el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

*Artículo 3.*– En el Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria deberán constar las siguientes variables:

1) Código del centro hospitalario.
2) Número de registro de ingreso.
3) Número de historia clínica.
4) Fecha de Nacimiento.
5) Sexo.
6) Lugar de Residencia.
7) Ocupación.

8) Ekonomi erregimena.
9) Sarrera eguna.
10) Sarrerarako zernolakoa.
11) Alta eguna.
12) Altaren zernolakoa.
13) Alta zerbitzua.
14) Diagnosi nagusiena.
15) Hala den kasuan, beste diagnosiak.
16) E Kodea(Kanpoko kausak).
17) Kirurgia prozedurak eta, hala denean obstetriziakoak.
18) Beste prozedura nabarmenak.
19) Hala denean, haurdunaldia.
20) Hala denean, jaioberriaren pisua.
21) Hala denean, jaioberriaren sexua.

*4. atala.*– Osasun Sailordetzaren erabaki baten bidez zehaztuko dira agiriaren formatua eta soporte fisikoa, definizioak, sailkapenak eta bertan adierazten diren aldagarriei dagozkien kodifikatze sistemak, halaber, agiri hori zein aldizkotasunez eta zein zirkuituren bidez bidaliko zaion Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten Erregistroari eta, xehetasun horiek, dekretu honetako aginduen arabera, sailordetza horrek egin ditzan aldaketen eta egokitzapenen baitan gelditzen direla dekretu horren xede den osasunbide informaziorako sistema erabiltzeak eta garatzeak eska ditzan beharren arabera.

*5. atala.*– Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten Erregistroari behar bezala jakinaraztearen eta, halaber, aurreko atalean adierazitako moduan egingo denaren ardura ospitaleko zuzendaritzak izango du.

*6. atala.*– Osasun Saileko Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Sailordetzari adskribaturik egongo den eta bere egoitza Organo horretan izango duen Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten Erregistroa sortzen da.

*7. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko ospitaleek bidalitako gaixo bakoitzaren ospitale-altaren xehetasunen gutxienezko oinarrizko bilduma jasotzen duten agiriak jasoko ditu erregistroak.

*8. atala.*– 1. Erregistroa erabiltzeko, iraunarazteko, babesteko eta zaintzeko eginkizunak, Osasun Saileko Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Sailordetzari dagozkio, halaber, indarrean dagoen legeriarekin bat eginik, erregistro horretan jasotzen diren xehetasunak babestea eta konfidentzialtasunaren bermea izatea ere.

2. Aipatutako zuzendaritza horrek, bere eginkizunetan dihardunean, ondorengo lan hauek garatuko ditu:

a) Erregistroaren iharduketa onaz arduratu.

b) Sistema hori ezartzeko baliozkotze egiaztagiriak ematea ospitale bakoitzarentzat.

c) Agirien kalifikazioa egitea beroietan dauden xehetasunen kalitatea eta konfidentzialtasuna zaintzeko behar dena erabakiz.

d) Aldizka-aldizka, ospitale-altaren xehetasunen gutxienezko oinarrizko bilduman ageri diren xehetasunak ebaluatzea, beroien kudeaketarako ezar daitezen administrazio iharduketak egin ahal izateko.

e) Erregistroko xehetasunen eta informazioaren estatistika ustiaketarako proiektu teknikoak diseinatzean eta horiek ezarri eta gauzatzekoan, eskuduntzadun gerta daitezen organoekin elkarlana egitea.

8) Régimen económico.
9) Fecha de admisión.
10) Circunstancia de la admisión.
11) Fecha de alta.
12) Circunstancia del alta.
13) Servicio de alta.
14) Diagnóstico principal.
15) Otros diagnósticos, en su caso.
16) Código E (Causas Externas).
17) Procedimientos quirúrgicos y obstétricos, en su caso.
18) Otros procedimientos relevantes.
19) Tiempo de gestación, en su caso.
20) Peso del recién nacido, en su caso.
21) Sexo del recién nacido, en su caso.

*Artículo 4.*– El formato y soporte físico del documento, las definiciones, clasificaciones y sistemas de codificación concernientes a las variables que en el mismo constan, así como la periodicidad y circuitos de envío del mismo al Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi, serán determinados mediante Resolución de la Viceconsejería de Sanidad, quedando sometidos a las variaciones y adaptaciones que se efectúen por la misma, con arreglo a las previsiones de este Decreto, y en virtud de las necesidades que requieran la aplicación y desarrollo del Sistema de Información Sanitaria objeto del mismo.

*Artículo 5.*– La Dirección del Centro Hospitalario será responsable del adecuado cumplimiento de la comunicación del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria al Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi, así como de su configuración, en los términos referidos en el artículo anterior.

*Artículo 6.*– Se crea el Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi, adscrito a la Dirección de Información, Docencia e Investigación Sanitaria del Departamento de Sanidad, y con sede en la de dicho órgano.

*Artículo 7.*– El Registro contendrá los documentos comunicados por los Hospitales de la Comunidad Autónoma del País Vasco constitutivos del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria de cada paciente.

*Artículo 8.*– 1. Corresponderán a la Dirección de Información, Docencia e Investigación Sanitaria del Departamento de Sanidad las funciones de llevanza, mantenimiento, tutela y vigilancia del Registro, así como la protección y cumplimiento de la garantía de confidencialidad de los datos contenidos en el mismo, de acuerdo con la legislación vigente.

2. La citada Dirección desarrollará en el ejercicio de sus funciones las siguientes labores:

a) Velar por el buen funcionamiento del Registro.

b) Emitir las certificaciones de validación de establecimiento del Sistema para cada Hospital.

c) Calificar los documentos determinando lo que proceda en atención a preservar la calidad y confidencialidad de los datos contenidos en los mismos.

d) Evaluar periódicamente los datos que figuran en el Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria a fin de posibilitar las actuaciones administrativas que se establezcan para gestión de los mismos.

e) Colaborar con los órganos que resulten competentes en el diseño de Proyectos Técnicos de Explotación Estadística de los datos e información registrales, así como en su establecimiento y ejecución.

f) Euskadiko ospitale-alten informazio sisteman oinarrituak dauden osasunbide plangintza eta ebaluaziorako programak prestatu eta gauzatzerakoan, osasun saileko gainerako organoekin elkarlana egitea.

*9. atala.–* Bere egitekoak bete ahal izateko, Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Zuzendaritzak, beharrezko duen informazioa eskatu ahal izango du ospitaleetako artxiboetan eta dagozkien egiaztapenak egin. Gaixoen historia klinikoetan dagoen informaziora sartzea, Euskal Autonomi Elkarteko Ospitaleetako historia klinikoaren erabilpena arautzeko den azaroaren 25eko 272/1986 Dekretuko 7. atalak eta berarekin bat datozenek horretarako ezartzen dituzten moduetan, zuzendaritza horretako aurretik kreditatutako langilegoak egin beharko du.

*10. atala.–* Osasunbide plangintza eta ebaluaketarako, Euskal Autonomi Elkarteko Ospitaleetako Alten Erregistroaren kudeaketa eta esplotazioa ekarri ahal izango dituzten programak eta ekintzak ezarriko ditu Osasun Sailak.

*11. atala.–* 1. Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bildumaren ezarketarako Jarraipen Batzordea sortzen da, agiri hori ezartzeko prozesuaren indartzailearen eta Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten Erregistroan dagoen informazioaren konfidentzialtasuna eta erabilpen ona bermatzeko proposamenak prestatzearen eginkizuna izango duena eta oro har, sistemaren hobekuntzarako edozein ekintza hartzearena.

2. Batzordea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

– Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Zuzendaria.

Bokalak:

– Osasun Plangintza, Antolaketa eta Ebaluaketa Zuzendaritzaren ordezkari bat, zuzendaritza horrek izendatua.

– Osakidetzako Osasun-Sorospenerako Zuzendaritzaren ordezkari bat, zuzendaritza horrek izendatua.

– Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadistica delakoaren ordezkari bat.

– Ospitale-sektore pribatuko enpresa antolakundeen ordezkari bat.

– Euskal Autonomi Elkarteko medikuen elkarte ofizialen ordezkari bat, beraiek aukeratua.

– Osasun-laguntzaile teknikoen Elkarte ofizialen ordezkari bat, beraiek izendatua.

Batzordeko kideetako batek ihardungo du idazkari bezala, batzordeak berak aukeratuko du.

Erregistroaren arduraduna ere batzordeko bileretan egongo da hitza bai baina botorik ez duela.

3. Jatorriko ente eta instituzioen proposamenez, Osasun Sailburuordeak egingo du batzordeko bokalen izendapena.

4. Legozkiekeen dieta eta kalteordainen kaltetan izen gabe, ordainketarik ez dute hartuko batzordeko kideek beren egitekoetan jarduteagatik.

f) Colaborar con los demás órganos del Departamento de Sanidad en la elaboración y ejecución de programas de Planificación y Evaluación Sanitaria, que tengan su base en el Sistema de Información del Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.

*Artículo 9.–* Para el cumplimiento de sus funciones, la Dirección de Información, Docencia e Investigación Sanitaria podrá recabar la información necesaria y realizar las comprobaciones pertinentes en los archivos de los Centros Hospitalarios. El acceso a la información contenida en las Historias Clínicas de los pacientes deberá efectuarse por personal previamente acreditado por la citada Dirección, en los términos que a tal efecto establece el artículo 7 y concordantes del Decreto 272/1986, de 25 de noviembre, por el que se regula el uso de la Historia Clínica de los Centros Hospitalarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 10.–* Por el Departamento de Sanidad se establecerán los programas o acciones que posibiliten la gestión y explotación del Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi con fines de Planificación y Evaluación Sanitaria.

*Artículo 11.–* 1. Se crea la Comisión de Seguimiento de la implantación del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria, que tendrá el carácter de órgano colegiado de asesoramiento adscrito a la Dirección de Información, Docencia e Investiagación Sanitaria, con la función de dinamizar el proceso de implantación del documento y de elaborar propuestas para garantizar la confidencialidad y el buen uso de la información existente en el Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi y en general sobre cualquier acción de mejora del sistema.

2. La composición de la Comisión será la siguiente:

Presidente:

– El Director de Información, Docencia e Investigación Sanitaria.

Vocales:

– Un representante de la Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria, designado por la misma.

– Un representante de la Dirección de Asistencia Sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, designado por la misma.

– Un representante del Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadistica.

– Un representante de las Organizaciones Empresariales del sector hospitalario privado.

– Un representante de los Colegios Oficiales de Médicos de Euskadi, designado por los mismos.

– Un representante de los Colegios Oficiales de Ayudantes Técnicos Sanitarios y Diplomados de Enfermería, designado por los mismos.

Actuará como Secretario uno de los miembros de la Comisión, que será elegido por la misma.

Asimismo, asistirá a las reuniones de la Comisión, con voz y sin voto, el encargado del Registro.

3. La designación de los vocales de la Comisión se realizará por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de los Entes o Instituciones de procedencia.

4. Los miembros de la citada Comisión no percibirán retribución alguna por el ejercicio de sus funciones, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que les puedan corresponder.

*12. atala.*– Dekretu honetan dauden xedapenak hausteak, dagokion espedientea egin ondoren eta horrekin batera egon daitezkeen erantzukizun zibilen, penalen eta bestelakoen kaltetan izan gabe, osasunbide legegintzan agindutakoaren arabera, administrazio zigorrak ekarri ahal izan ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma delako agiria egiteko eta osasunbide administrazioari jakinarazteko obligazioa, Euskal Autonomi Elkarteko Ospitaleetako Historia Klinikoaren erabilketaren arauketa egiteko zen 272/1986 Dekretuaren 3.1.j) atalean aipatutako «Asistentziaepealdiari buruzko azken-laburpenaren errejistraketa alta»-ri eta Osasunbide establezimenduetan sorositako gaixoentzako den «Alta-Informea»-ri buruzko zen 1984ko irailaren 6ko Ministeritza Aginduan garatutakoari dagokion arauketaren kaltetan izan gabe ulertuko da. Bi tresna horiek, preklusiozko izaera izango dute denboran zehar eta Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma delakoa osatzen duen laburpen inpertsonala eratzeko oinarrizkoak izango dira.

*Bigarrena.*– Estatistikarako 89/1992 Euskal Plana onartzeko zen urriaren 6ko 7/1989 Legearen 7.2 atalean adierazitako izaera eduki ahal izango dute xedapen honetan araututako administrazio ekintzek eta beraz, dekretu honetan eta hori garatuko duten gainerako xedapenetan agindutakoak arautuko ditu ekintza horiek eta hori, estatitistika arrazoiengatik, aipatutako lege horretan, Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezarri daitekeenaren kaltetan izan gabe edo Urteroko Estatistika Egitarauetan edo Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten erregistroan dagoen informazioaz balia daitezkeen estatistika ekintzetarako proiektu teknikoetan xeda dadinaren kaltetan izan gabe.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

*Lehenengoa.*– Euskal Autonomi Elkarteko ospitale guztiak sortu den osasunbide informaziorako sistemara gero eta gehiago sar daitezen, 5 hilabetetako behin-behineko epe bat jartzen da dekretu honen indarrartze unetik aurrera.

Epe horren barruan, Ospitale-Alten Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduma ezartzeko, xehetasunak erregistrora bidaltzen hasteko, Euskal Autonomi Elkartearen Ospitale-Alten Erregistroaren ardura duen organoari bere establezimendua baliozkotua izan dadila eskatuz, ospitale bakoitzak, bere barne-kudeaketaren dagokion egokiketari ekin beharko dio.

Dena dela, sistema baliozkotzean erabaki dadin «ospitale-alta»-k egiten hasteko eguna kontutan harturik hasiko da xehetasunak prestatzeko eta erregistrora bidaltzeko obligazioa eta inola ere ezingo du egun horrek 1994ko urtarrilaren 1a ondoren izan.

*Bigarrena.*– 3. atalean adierazitako zeregina, E kodea, beste prozedura nabarmenak eta haurdunaldia bezalako xehetasun aldagarriak bidaltzea, ospitale xehetasunak jasotzeko sistemen egokiketen eta horren ondorengo balioztatzen arabera, piskanaka gehituz egin beharko da, dena dela ere, 1995eko urtarrilaren 1a baino lehenago.

*Artículo 12.*– Las infracciones a las disposiciones contenidas en el presente Decreto podrán ser objeto de sanciones administrativas con arreglo a lo previsto en la Legislación sanitaria, previa instrucción del oportuno expediente administrativo, y sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden que pudieran concurrir.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– La obligatoriedad de elaboración y comunicación a la Administración Sanitaria del documento Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria, se entenderá sin perjuicio de la regulación que afecta tanto al «Registro-resumen final del episodio asistencial en el momento del alta», referido en el artículo 3.1.j) del Decreto 272/1986, por el que se regula el uso de la Historia Clínica de los Centros Hospitalarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como al «Informe de Alta» para pacientes atendidos en Establecimientos Sanitarios, desarrollado en Orden Ministerial de 6 de septiembre de 1984. Ambos instrumentos tendrán un carácter preclusivo en el tiempo y servirán de base para la configuración del extracto impersonal que constituye el Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria.

*Segunda.*– Las actuaciones administrativas reguladas en la presente disposición podrán tener el carácter previsto en el artículo 7.2 de la Ley 7/1989, de 6 de octubre, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 89/1992, rigiéndose, en consecuencia, por lo dispuesto en este Decreto y demás disposiciones que lo desarrollen, sin perjuicio de lo que, por motivos estadísticos, se establezca en la citada Ley, en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o se disponga en los Programas Estadísticos Anuales o en los Proyectos Técnicos de las operaciones estadísticas que se sirvan de la información contenida en el Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi.

DISPOSICION TRANSITORIA

*Primera.*– Se establece un plazo de transitoriedad de 6 meses a partir de la entrada en vigor de este Decreto para que progresivamente todos los Hospitales de la Comunidad Autónoma del País Vasco se incorporen al Sistema de Información Sanitaria creado.

Dentro del citado plazo, cada Hospital deberá proceder a la oportuna adecuación de su gestión interna para la implantación del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria, solicitando del órgano encargado del Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi la validación de su establecimiento para inicio del envío de datos al Registro.

En todo caso, la obligación de elaboración y envío de datos al Registro se hará efectiva con relación a la fecha inicial de producción de «altas hospitalarias» que se determine en la validación del Sistema, no pudiendo exceder dicha fecha en ningún caso del 1 de enero de 1994.

*Segunda.*– La remisión de las variables Ocupación, Código E, Otros procedimientos relevantes y Tiempo de gestación previstos en el artículo 3.º se deberá producir progresivamente en función de la adecuación de los sistemas de recogida de datos hospitalarios y su posterior validación, y en todo caso con anterioridad al 1 de enero de 1995.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Euskal Autonomi Elkarteko Ospitale-Alten Erregistroaz arduratuko den organoak emandako baliozkotze egunetik aurrera gauzatuko da informazio sistema hau ospitale bakoitzera sartzea. Sartze horrek, maiatzaren 21eko 1360/1976 Dekretuan ezarritako sarreren eta alten erregistro liburua eramateko obligazioa indargabeturik utziko du.

*Bigarrena.*– Dekretu hau garatzeko, halaber, Ospitale-Altaren Xehetasunen Gutxienezko Oinarrizko Bilduman adierazi beharreko xehetasun aldakorrak elkartearen gaindik dauden informazio sistemek ezar ditzaten betekizunei egokitzeko ere beharrezko izan daitezen xedapenak emateko ahalmena eskuratzen zaio Osasun Sailburuari. Halaber, hala behar izanez gero, aldibaterako xedapenetan adierazitako epeak aldatzeko eskuduntza ere ematen zaio.

*Hirugarrena.*– Dekretu hau betetzeko eta erabiltzeko beharrezko neurriak hartzeko erabakiak emateko eskuduntza ematen zaio Osasun Sailburuordeari eta, agiri horren ezaugarri fisikoei, aldizkotasunari eta jakinerazpen bideei dagokienez eskuduntza horren barruan sartzen dira.

*Laugarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroak 3.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun Sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– La incorporación de cada Hospital al presente Sistema de Información se hará efectiva a partir de la fecha de validación otorgada por el órgano encargado del Registro de Altas Hospitalarias de Euskadi. Dicha incorporación dejará sin efecto la obligatoriedad de llevanza del libro de registro de ingresos y altas, establecida en Decreto 1360/1976, de 21 de mayo.

*Segunda.*– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones precisas para desarrollo del presente Decreto, así como para la adaptación de las variables que han de constar en el Conjunto Mínimo Básico de Datos del Alta Hospitalaria a los requerimientos que establezcan los Sistemas de Información supracomunitarios. Asimismo se le faculta para modificar, si procede, los plazos previstos en las disposiciones transitorias.

*Tercera.*– Se faculta al Viceconsejero de Sanidad para dictar las resoluciones y adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento y aplicación del presente Decreto, quedando incluidas en el citado ámbito las modificaciones que procedan respecto a las características físicas, periodicidad y circuitos de comunicación del documento.

*Cuarta.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Oposaketa eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

**LEHENDAKARITZA,**
**LEGE ARAUBIDE**
**ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA**
***H.A.E.E.***

**3393**

ERABAKIA, 1992ko azaroaren 17koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariarena, 1992ko irailaren 24ko Erabakiz dei egindako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko frogetarako onarturiko eta bazter utziriko azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen duena. (Hutsen zuzenketa).

EHAAren 1992ko azaroaren 27ko 232. alean argitaratu zen erabaki hori eta, bertan, onartutakoen behin-behineko zerrendaren zati bat agertu gabe utzi zenez, ondoren argitaratzen da zati hori:

**DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA,**
**REGIMEN JURIDICO**
**Y DESARROLLO AUTONOMICO**
***I.V.A.P.***

**3393**

RESOLUCION de 17 de noviembre de 1992, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se hace pública la relación provisional de admitidos y excluidos de las pruebas de acreditación de perfiles ligüísticos convocadas por Resolución de 24 de septiembre de 1992. (Corrección de errores).

La citada resolución se publicó en el B.O.P.V. n 232, de 27 de noviembre de 1992 y, habiéndose advertido la omisión de parte de la relación provisional de admitidos, se procede a su publicación: